

GURE ESKGLAK ABIADA BERRIAN

Irailak lanera deitzen gaitu urtero, oporraldia agortu ondoren. Atzera gabeko bultzadaz datorkigu ikasturte berria eta zenbait ikasleri amesgaizto bezala egingo zaie abuztutik irailerako zubi azkar hau. Udako pusaldi atsegina joan da. Oram benetako ordua! Ekainean zintzilik itzitakoen kontu eske irakasleak eta azterketen mamu beltza...

Gizakiaren bizitza aski'latza da txiki-txikitarik eta bakoitzak -txiki naiz handi- eraman ahaleko zama du gamean. Haurrek ikasturte berria zain; guraso, irakasle eta herriak berak ere itxaropenez, ametsez, baina baita artegatasunez ere abegi egingo diote. Irakaskuntza euskararen berreskurapenerako zutabe tinkoenetarikoa izanik, euskaldunok la genre bizia jokatzen dugu-lakoan gaude ikasturte berria hasten den bakoitzean. Galderak, nahiak, ametsak, kezak... dena nahaste.

Hau idazten diharduala, gogoan ditut, mutikotan, ikastetxeetako logela ireki haietan txitean-pitean entzun zitezken ametseta xelege haiek. Zilegi bekigu euskaltzaleoi ikasturte berraren abiaburuan eta ahots ozenez amets egitea. Gaucko ametsetan subkonzientea omen da eragile; barneko eduki horren jarioa, gainezkatzea, linburtzca omen da amets egitea.

Alabaina Karmel aldizkariaren orrietatik, noizean behin subkonzienteari darion amets-ohiu ulergaitzen bat itzun arren,

oinak lurtean tinkatu nahi nituzke eta Euskal Herriko Komunitate Autonomoko ikuspegi orokorra eskaini gain-gainetik, baina Eskolaurre eta O.H.O.-ri dagokionez bakarrik. Beraz, Euskal Herri osoko datorik ez dugu, Komunitate Autonomokoak baizik. 1982-83.ekoak hain zuzen.

Adina	Guztira	Eskolaurrea	O.H.O. (E.G.B.)	H.B.(Heziketa Berezia)
Guztiz	404.645	83.046	319.294	2.305
2 urte	1.447	1.447		
3 >	13.971	13.926	—	45
4 >	32.995	32.937	—	58
5 >	36.252	34.605	1.573	74
6 >	38.333	131	38.054	148
7 >	38.273	—	38.106	167
8 >	38.015	—	37.842	173
9 >	37.721	—	37.540	181
10 >	37.987	—	37.774	213
11 >	38.056	—	37.842	214
12 >	36.974	—	36.764	210
13 >	36.131	—	35.910	221
14 >	11.432	—	11.236	196
15 >	2.864	—	2.655	209
16 >	518	—	322	196

Jakina denez, zerrenda ez da hemen bukatzen, erdi mailako nahiz lanbide heziketa baitator ondoren eta azkenez goi mailakoa edo unibertsitatekoa. Heziketa berezian ere 20 urteko adinera arte ageri dira ikasleak, baina hemen Eskolaurreari eta O.H.O.ri dagokienez adinak bakarrik hartu ditugu kdntutan. Somatuko zenuenez, heziketa mota bakoitzak ez du rnuga guztiz zehatzik. Adibidez, berez Eskolaurrean egon behar luketen 5 urteko haur batzu O.H.O.ean agertzen dira- 14 urteko ikasle mordotxo bat Erdi mailako irakaskuntzan eta alderantziz ere bai: 15 eta 16 urtekoak O.H.O.ean. Horretan zer-ikusit handikoa da haurrak noiz betetzen dituen urteak eta kurtso-errepikapenen erruz ere agertu ohi dira adinaren eta irakaskuntza motaren desegokitasunak.

Orain arte ez dugu ezer esan euskara-erdara auziaz. Hiru eratako eskolak ditugu Euskal Herriko Komunitate Autono-

moan: Eskola Fublikoak, Ikastetxe Pnbatuak eta Ikastolak. Euskararen erabilarari digokionez, berriz honela sailkatzen dugu irakaskuntza:

1. Erdara hutsezko irakaskuntza.
2. A Eredua (euskara gai bezala ematen da).
3. B Eredua (elebidun irakaskuntza).
4. D Eredua (euskara hutsezko irakaskuntza).

1. *Erdara hutsezko irakaskuntza .*

- Eskola Publikoetan: 18.856	Eskolaurrean + 49.940	O.H.O.ean = 60.796
-Ikastetxe Pribatuetan: 3.937	» + 8.671	» = 12.608
-Ikastoletan: 0	» + 0	» = 0

Gustiz = 73.404

2. *A Eredua (euskara gai bezala)*

-Eskola Publikoetan: 15.447	Eskolaurrean + 90.956	O.H.O.ean = 106.403
-Ikastetxe Pribatuetan: 12.688	» +96.884	» = 109.572
-Ikastoletan: 1.856	» + 4.913	» = 6.769

Gustiz = 222.744

3. *B Eredua (elebidun irakaskuntza)*

-Eskola Publikoetan: 10.358	Eskolaurrean+ 9.341	O.H.O.ean = 19.699
-IkastetxePribatuetan: 3.684	» + 7.429	» = 11.113
-ikastoletan: 5.027	» +5.431	» = 10.458

Gustiz = 41.270

4. *D Eredua (Euskara hutsezko. irakaskuntza)*

-Eskola Publikoetan: 2.936	Eskolaurrean + 5.676	O.H.O.ean= 8.612
-ikastetxe Pribatuetan: 2.624	» + 6.122	» = 8.746
-ikastoletan: 13.633	» +27.760	» = 41.393

Gustiz= 58.751

Gaztelania hutsezko irakaskuntza eta A eredia (euskara gai bezala) biltzen baditugu, 296.148 da emaitza. Beraz erdarazko irakaskuntzaren kopurua ikaragarrikoa da oraindik.

Euskarari toki handi samarra egiten dioten ereduetan ere, ez da ahaztu behar onako hau: B Eredua, elebidun irakaskuntzaren sailean sartzen badugu ere, gaztelaniazkoa izaten da neurri handi batetan; ba omen daude salbuespenak ere zorionez. Beste aldetik, D Ereduan gaztelania gai bezala ematen da. B eta D Ereduetako kopuruak biltzen baditugu, 100.021 da emaitza. Oso

zenbaki txikia beste emaitzaren ondoan...

Komunitate Autonomoko lurralde historiko bakoitzari begira jartzen bagara, hauek irateke emaitzak:

o *Arabian:*

- Erdara hutsezko irakaskuntza	9.996
- A Eredua (euskara gai bezala)	32.998
	" 42.994
- B Eredua (elebidun irakaskuntza)	5.123
- D Eredua (euskara hutsezkoa)	905
	6.028

Bizkaian:

- Erdara hutsezko irakaskuntza	59.625
= A Eredua (Euskara gai bezala)	<u>114.920</u>
	174.545
= B Eredua (elebidun irakaskuntza)	17.295
- D Eredua (euskara hutsezkoa)	19.434
	"36.729

Gipuzkoan:

- Erdara hutsezko irakaskuntza)	3.783
- A Eredua (euskara gai bezala)	74.826
	78.609
•- B Eredua (elebidun irakaskuntza)	18.852
- D Eredua (euskara hutsezkoa)	38.412
	57.264

Hor xlaude zenbakiak. Zenbakien hizkuntza bihotz-ukitu gabekoa, hotza eta zehatza da, baina kasu honetan baita dardar eragitekoa ere. «Zilegi bekigu euskaltzaleoi ikasturte "Berriaren abiaburuan eta ahots ozenez amets egitea» nioen lantxo honen sarreran; baina zenbaki hotz hauek izatzarri eta egia gordin honen aurrez-aurre jarri naute.

Luis Baraiazarra